



LOIOLA

BILERAREN LABURPENA

Eguna	2015-11-19
Ordutegia	19:00 – 21:00
Tokia	Loiolako Kultur Etxean



DEITUTAKOAK

Urumea AA/EE

Azpiegiturak, Mantentze eta Herri Partaidetza.
Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK:

Urumea AA/EE

Lehendakaria eta 2 bokal

Udal Partaideak

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Alfonso Gurpegi, Zinegotzia
Joseba Rodriguez, Teknikaria
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria
Amaia Agirreolea, Teknikaria

HELBURUA:

Loiola inguruan hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

- 1. Topoaren obrak: ponpaketa kaseta, Iberdrolaren kaseta, Añarbeko estazioaren aztarnak, pasabidearen eraispena**
- 2. Kuartelen aurreko biribilgunea**
- 3. Saihesbidea bulebar bihurtzea**
- 4. Loiolako baserriak**
- 5. Zabor edukiontziak**
- 6. Aparkalekuak**
- 7. Kirol instalazioak**
- 8. Komun publikoak**
- 9. Kuarteletako zubiaren izena**
- 10. Argi-hartunea Latsatari plazan**
- 11. Uba bidea**
- 12. Argiztapena**
- 13. Saihesbidearen azpiko aparkalekuko karabanak**

1. TOPOAREN OBRAK: PONPAKETA KASETA, IBERDROLAREN KASETA, AÑARBeko ESTAZIOAREN AZTARNAK, PASABIDEAREN ERAISPENA

- **Ura ponpatzeko kaset**

Añarbeko ponpaketa estazioa dagoen tokitik kendu eta, kokapen berrian, zeharbidearen eta aparkalekuaren mailan geldituko da. ETS eta Ur Zerbitzuko teknikariak estalkiak, hodiak eta bestelako erasanak aztertzen ari dira jada.

Udalaren ponpaketa estazioa tokiz aldatu behar da, geltoki berriko horma-bularrei traba egiten die-eta.

- **Iberdrolaren kaset**

Udala harremanetan dago jada Iberdrolarekin eta argi eta garbi esan dio lur azpian jarri beharko dela. Obra dela-eta beharrezkoa da kaset tokiz aldatzea, baina oraingoz ez dago informazio gehiago.

- **Zubiaren eraispena**

ETS harremanetan jarriko da auzoarekin, obrari buruzko informazioa emateko. Zubia abenduaren 1ean eta 2an eraitsiko da, ondo bidez. Hau da, eraiste lanak bi gautan egingo dira.

Zubian, oinezkoen pasabide bat dago, La Salleko ikasleek erabiltzen dutena. Zubia eraisten denean, hura ere desagertuko da. Horri irtenbidea emateko, ikasleentzako oinezko ibilbidea prestatzen ari dira, autobusaren geralekura joateko; han, pasabide semaforodun bat jarriko da.

Ikastetxearekin eta Eskola Bidea programarekin harremanetan daude, aipatutako esku-hartze hori ondo hartua izan dadin laguntza pedagogikoa emateko.

Obra horiek erasan ugari eragingo dute. Haietako batek zerikusia du autobusaren geralekuaren ondoan dagoen aparkalekuarekin, Erribera aldera goazela topoaren geltokiaren aurrean gelditzen denarekin. Aurreikusitako eraispenak egin eta gero, behin betiko itxitura jarriko da, obrak berriak mugatzeko.

ETSk Udalari eskatu dio alde horretako zuhaitzak –haietako batzuk palmondoak dira- handik kentzeko protokoloa eskuratzeko. Udalak ez dio oraindik eman, baina, aditzera eman duenez, ez omen da oso kontu erraza. Izan ere, etorkizuneko kokaleku berria urbanizatuta ez dagoenez, mugimenduak arriskutsuak dira, bizirik irautea nahi badugu.

Urumea Auzo Elkartea: Aprobetxatuko al dira obrak Lorategi Hirian euri urak bideratzeko?

2. KUARTELEN AURREKO BIRIBILGUNEA

Udalak erabaki du behin betiko irtenbidea ematea biribilguneari. Proiektua definitua dago jada lizitaziorako.

3. SAIHESBIDEA BULEBAR BIHURTZEA

Loiola zeharbidean esku hartzeko planteatutako irtenbide biguneko proiektua ez da onartu eta lan prozesu berri bati ekin zaio, bulebarra egiteko 2007ko proiektua abiapuntutzat hartuta.

Proiektu horretan oinarrituta, hura hobetzeko, eguneratzeko... bidea emango duen herritarren parte-hartze prozesu ireki bati heltzeko konpromisoa hartu da, 2016an behin betiko proiektu bat izateko asmoz.

4. LOIOLAKO BASERRIAK

Patxillardegia:

Emandako informazioaren arabera, 1998az geroztik monumentu kategoria du eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian jasota dago. Aldundiari dagokio haren zaintza.

Urumea Auzo Elkarteak: Sarrera inkontrolatuak izan dira berriz ere Patxillardegian. Ez da ez babesten ez zaintzen.

Matxinene:

Ez du babesik eta bideratzen ari den Lorategi Hiriko Plan Bereziak komunitate ekipamendutzat jotzen du lursaila.

Urumea Auzo Elkarteak: Maturene eta Astiñeren inguruko informazioa eskatzen dute.

5. EDUKIONTZIAK ETA BILTZEKO MODUA

Gaur egun dauden ahoetako batzuk egokitzen ari dira, laster zabor organikoaren bilketari ekiteko. Ahoen tamainari eutsi egingo zaio.

Eliza kaleko zuloak ez dira behin betiko obra moduan estaliko, horrek ekarriko bailuke sistemako aho batzuk lurperatzea.

Tamaina handikoak biltzeko formula berriak aztertzen ari dira.

Urumea Auzo Elkarteak honakoak eskatzen ditu:

- auzoari informazioa emateko sistemaz aldatzeari lotutako guztiari buruz
- Eliza kaleko plakak aldatzeko, eman egin dute-eta
- edukiontzi horiak maizago husteko
- pegatinak jartzeko, argi gelditu dadin nola erabili behar diren edukiontziak, zer zigor ezar daitezkeen...
- ez kentzeko Lorategi Hiriko edukiontziak
- Hipika bideko edukiontzi zigilatuak konpontzeko

Urumea Auzo Elkarteak: aitortzen du bilketa zerbitzua hobetu egin dela, eta eskerrak ematen ditu horregatik.

6. APARKALEKUAK

Oro har, Udalak ez du aurreikusten laster aparkaleku gehiago jartzea.

Urumea Auzo Elkartea: Hainbat toki eta formula proposatzen du, aparkaleku gehiago izateko, oso gutxi baitira auzo osoan: Lorategi Hiriko futbol zelaian, Loiola zeharbidean edo Lopetegi Berri ondoan zeharka aparkatzea.

Baimena ematea gauean oinezkoen kaleetan aparkatzeko.

7. KIROL INSTALAZIOAK AUZORAKO

Urumea Auzo Elkartea: futbol zelaian argi gehiago jartzeko eta Donostia Kirolaren eskaintza Loiolara iristeko eskatzen du.

8. KOMUN PUBLIKOAK

Urumea Auzo Elkartea: WC instalazio bat jartzea proposatzen du, auzokoentzat eta ibai pasealekutik ibiltzen direnentzat. Latxaga plaza edo sozietatearen plaza izan daitezke kokaleku aproposa horretarako.

9. KUARTELETAKO ZUBIAREN IZENA

Badago plaka bat, Udalak jarri ez duena eta hiriko kale-izendegian zubi horretarako jasota dagoenaz bestelako izena daramana. Hala, aditzera ematen da izen egokia eramango duen plaka egiteko agindua eman dela: Urdinzuko zubia. Prest dagoen bezain laster, hau jarri eta orain dagoena kenduko da.

10. ARGİ-HARTUNEA LATSARI PLAZAN

Urumea Auzo Elkartea: hartunedun kaxa elektriko bat jartzeko eskatzen du, behar denean aktibatzeke: festak, agertokiko jarduerak, e.a.

Izan ere, beharra dagoen bakoitzean Iberdrolari diru asko ordaindu behar zaio loturagatik.

11. UBA BIDEA

Urumea Auzo Elkartea: Uba bidetik jende gehiegi igarotzen dela uste dute, kontuan hartuta oso bide estua dela. Egoera hori hobetzeko neurriak hartzeko eskatzen dute.

12. ARGİZTAPENA

Urumea Auzo Elkarteak Lorategi Hiria, eta Egiara (Urki) eta Erriberetara joateko bideak hobeto argiztatzeko eskatzen du. Adibidez, intentsitate handiagoko bonbillak jar daitezke, bonbilla gehiago nahiz beso baxuagoak faroletan.

13. SAIHESBIDEAREN AZPIKO APARKALEKUKO KARABANAK

Elkarteak eskatu du neurriak hartzeko ferietako salerosleen karabanak ez egoteko hain maiz eta hain luze bertan, urtarriletik urrira arte.

Kezkatuta daude, baita ere, aparkaleku horretan badaudelako karabana partikular asko, handik mugitzen ez direnak, auzoan aparkaleku gutxi dagoelako.